



Curriculumama

Euskal Eskola Publikoa **Gaur Bihar**

IV. ZATIA

EUSKAL HERRIRAKO CURRICULUMAREN ARLOAK



1.-EUSKAL HERRIRAKO CURRICULUMAREN ARLOEN PROPOSAMENA

Arlo eta diziplina ezberdinak normalean curriculumaren edukiak eta gaitasunak antolatzen eta kokatzen uzten duten egiturak dira. Materiak kontzeptuen, prozeduren eta jarrerren sailkapena eta kategorizazioa ahalbidetzen dute ezagutza zientifikoaren arloen arabera. Hartutako curriculum-ikuspuntuak eskola-urtearen, lanaren plangintzaren, denboraren eta espazioaren ikusmoldearen, gelan irakasleak hartutako rolaren, ebaluazio lanen tipologiaren, eta abarren planteamendua baldintzatzen du.

Ondoren azaltzen dugun arloen proposamenak curriculumean ezagutzaren antolakuntzari dagokionez diziplina moduko ikusmoldea adierazten du. Ondare sozialaren eta kulturalaren edukien egituraketan ikuspegi eta arlo holistikoagoak badaudela jakin arren, ikuspuntu hau aukeratu dugu. Erabaki honen oinarritzko argudioa praktikotasuna da. Zenbait Administrazioak aldarrikatutako legeriak arloen eta materien arabera prestatzen du ezagutza.

Nahiz eta, Hernándezen (1993) arabera, onartutako ezagutza sozialen eta zientifikoaren 160 arlo izan, ondoren adierazten ditugun diziplinak euskal kulturaren eta gizartearen gaitasuna, ikasketa esperientzia eta eduki garrantzitsuenen sailkapena eta antolaketa egiteko nahiko adierazgarriak direla uste dugu. Ondoren adierazten diren arloei Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren hautazkoekin lotutako irakasgaiak gehitu beharko zaizkie.

-EUSKAL HERRIRAKO CURRICULUMAREN EZAGUTZA ARLOEN



PROPOSAMENA

- Hizkuntza arloa.
- Matematikak.
- Herritarrentzako hezkuntza.
- Orientabidea eta Tutoretza.
- Gorputz Hezkuntza.
- Ingurunearen Ezagutza.
- Natur Zientziak.
- Gizarte Zientziak.
- Hezkuntza Artistikoa, Plastikoa eta Ikustekoa.
- Musika.
- Teknologia.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak (TIC-IKT).

Euskal Herrirako Curriculumaren ezagutza arloen proposamena.

Baina curriculumaren ikuspegi diziplinatua zuhurtziarekin hartu behar da. Ikastetxea ez da gizartearen talde eta interes ideologiko nagusien hitzaldi ofizialak berriro erreproduzitu behar duen erakundea. Ikastetxeak bere ezagutza propioa ere eraiki eta sortu dezake. Ikasketa esperientzien transbertsalizazioak, diziplina arteko curriculum sortzeak eta curriculum sortze globalak hurbileko inguru sozialetara ideiak eta informazioak transferitzea errazten, jakintzen integrazioa sustatzen, planteamendu sozialak aztertzen eta garatzen uzten dute era kontzientean, kritikoan eta sortzailean, gizatasun baloreen gainean sakontzea eta azterketa sustatzen dute, etab. Azken finean, indarkeria sexista, norbere identitatearen defentsa, gerrak, berdintasuna, askatasun sexuala, herrien arteko solidaritatea, gatazka soziala, txirotasuna, etab. ikasleak hausnartu beharreko fenomeno globalak eta diziplinen artekoak dira; curriculum arlo eta diziplina guztiak hor daude sartuta.